

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Ebazpena, 2026ko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiari buruzkoa

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko urriaren 3ko bilkuran, 2026ko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi zituen, 2026ko ekitaldirako udal-aurrekontuko 23.12.03.3381.48922 aurrekontu-partidaren kargura, laurogeita hamabost mila euroko zenbatekoarekin, kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta balorazio-organoa 2025eko abenduaren 30ean bilduta, balorazio-akta egin zen, aipatutako deialdia eta dirulaguntza-proposamena arautzen dituzten oinarrietan ezarritako irizpideen arabera.

Honako hau dio 2025eko abenduaren 30eko aktak:

“Soinudun karroza duen konpartsa bakoitzari 1.500,00 euroko zenbateko finkoa emango zaio, gehi zenbateko aldakor bat, zeina soinudun karrozei dagokien zenbatekoa kenduta geratzen den dirulaguntzaren gainerako zenbatekotik kalkulatu baita, eta zenbateko hori konpartsakideen kopuru totalaren artean banatuko da, emaitza ateratzeko (gehienez 258 pertsona konpartsa bakoitzeko).

6.674 pertsonak eman dute izena desfilean parte hartzeko.

Diruz lagundu daitekeen pertsonen guztirako kopurua 6.080 da, 2026ko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 9.2. puntuan adierazitakoa kontuan hartuta.”

Deialdi honen oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorritik, 2025eko abenduaren 30eko aktan dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egin zen, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari aurkeztu eta, hala bazegokion, onetsi zezan.

Entitate horiek egunean dituzte zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzari nahiz Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak.

Kontuan hartuta 2026ko ekitaldiko udal aurrekontuko 23.12.03. 3381.48922 partidaren badela zuzkidura egokia eta nahikoa.

Bat etorritik Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 16an dirulaguntzen arloko eskumenak eskuordetzeko hartutako erabakiarekin, dirulaguntzen udal ordenantzaren 5.1 artikularekin eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127.1g) artikularekin, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariak honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa. 2026ko inauterietan parte hartzen duten konpartsentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpena onestea, guztira laurogeita hamabost mila euro, 2026ko ekitaldirako udal-aurrekontuko 23.12.03.3381.48922 aurrekontu-partidaren kargura, eta dirulaguntza ematea honako entitate hauei, zerrenda honetan zehazten diren zenbatekoen arabera:

KONPARTSA	IFK	PERTSONA KOPURUA, GUZTIRA	LAGUND. PERTS. KOP.	8,71 € GEIHENEZ 258	TALDEA	GUZTIRA
AMPA COLEGIO SAGRADO CORAZÓN CARMELITAS	G01025089	400	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
ASOCIACIÓN CLUB DE AMIGOS DE SANSOMENDI-ALI	G01144385	253	253	2.205,428 €	1.500,00 €	3.705,43 €
AMPA SAN JOSÉ DE CALASANZ ESCOLAPIOS	G01030535	322	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
OLAUTERI INAUTERIAK PRESTATZEKO GURASO ELKARTEA	G75456368	241	241	2.100,822 €	1.500,00 €	3.600,82 €
PENYA BARCELONISTA DE VITORIA-GASTEIZ EUSKOBARÇA	G01123009	201	201	1.752,138 €	1.500,00 €	3.252,15 €
ASOCIACIÓN CULTURAL PARROQUIA BUEN PASTOR ZARANBIZ-MERCEDARIAS IKASTETXEA	G01395581	272	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
ASOCIACIÓN SANPRUINAUTERIAK DE CARNAVALES COLEGIO SAN PRUDENCIO	G19421676	239	239	2.083,388 €	1.500,00 €	3.583,40 €
ASOCIACIÓN CULTURAL COMPARSA BAILA Y DISFRUTA	G01538727	231	231	2.013,651 €	1.500,00 €	3.513,65 €
ASOCIACIÓN SOCIO CULTURAL ARIZNABARRA	G72475437	300	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
ASOCIACIÓN SOCIO CULTURAL IRITSI GARA	G01539865	240	240	2.092,105 €	1.500,00 €	3.592,11 €
ASOCIACIÓN DE VECINOS ARANAKO	G01137173	166	166	1.447,039 €	1.500,00 €	2.947,04 €
AMPA NIEVES CANO - EGIBIDE	G01044312	167	167	1.455,757 €	1.500,00 €	2.955,76 €
CENTRO CULTURAL ANDALUZ SENECA	G01029545	200	200	1.743,421 €	1.500,00 €	3.243,42 €
HOGAR EXTREMEÑO VIRGEN DE GUADALUPE	G01046622	154	154	1.342,434 €	1.500,00 €	2.842,43 €
ASOCIACIÓN CULTURAL ZABALGANAKO KONPARTSA	G01571793	203	203	1.769,572 €	1.500,00 €	3.269,57 €
AMPA COLEGIO VERA CRUZ	G01018191	200	200	1.743,421 €	1.500,00 €	3.243,42 €
ASOCIACIÓN DE CARNAVALES NIÑO JESÚS IKASTETXEA	G01561794	167	167	1.455,757 €	1.500,00 €	2.955,76 €
AMPA COLEGIO SAGRADO CORAZON CORAZONISTAS	G01267046	214	214	1.865,460 €	1.500,00 €	3.365,46 €
ASOCIACIÓN CULTURAL SAN VIATOR / COFRADIA N.S.C.C	G01488295	305	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
IKASBITURRIBERO KONPARTSA ELKARTEA	G13871074	200	200	1.743,421 €	1.500,00 €	3.243,42 €
ASOCIACIÓN DE VECINOS SANTA LUCIA-ERREKATXIKI	G01125228	297	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
AMPA GUILLERMO CHAMINADE MARIANISTAS	G01298306	197	197	1.717,270 €	1.500,00 €	3.217,27 €
AMPA NCLIC SCHOOL	G01575240	194	194	1.691,118 €	1.500,00 €	3.191,12 €
ASOCIACIÓN COMPARSA CARNAVAL DE ABETXUKO	G01379007	298	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
AMPA COLEGIO URKIDE	G01023035	372	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
AMPA ANA MARIA RIVIER PRESENTACION DE MARIA	G01025170	350	258	2.249,013 €	1.500,00 €	3.749,01 €
ASOCIACIÓN SOCIO CULTURAL EUSKALI	G16479099	99	99	862,993 €	1.500,00 €	2.363,00 €
SALBURUKO ESKOLA PUBLIKOEN KONPARTSA	G56400641	192	192	1.673,684 €	1.500,00 €	3.173,68 €
GUZTIRA		6674	6080	53.000,00 €	42.000,00 €	95.000,00 €

Bigarrena. Aurreko zerrendan adierazten diren kopuruen ehuneko 80 ordaintzea. Gainerako ehuneko 20a jarduera egin eta justifikatu ondoren ordainduko da, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen hau argitaratzea, jakinarazpen-ondorioak izan ditzan, ALHAOn, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen (BDNS) eta udalaren webgunean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45.1 b) artikuluaaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea amaitzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsua Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura espresuki edo presuntzioz ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urtarrilaren 28an

Kultura eta hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA